

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5583

*1759/2022 EBAZPENA, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Laneko Medikuntzako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko deitutako hautaketa-prozesu hauetako oinarri orokorrak: 2020ko, 2021eko eta 2022ko urteetakoak eta egonkortzeko prozesukoak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategorია bakoitzeko destinoen deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, kontuan izanda Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarriak,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-prozesuetarako deia egitea.

Bigarrena.– Osakidetzan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak (lehiaketa-oposizioko blokea eta lehiaketako blokea) arautuko dituzten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean jasotakoak, Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategorian (Laneko Medikuntzako FEM lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinaren bidez onartzea lehiaketa-oposizioko blokea eskainitako destinoen zerrenda.

Laugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean agertzen den merezimenduen baremoa onartzea (baremo bera da oposizio-lehiaketaren blokerako eta lehiaketaren blokerako).

Bosgarrena.– Lehiaketa-oposizioko blokeko gai-zerrenda onartzea, Ebazpen honen IV. eranskinean jasotakoa.

Seigarrena.– Deialdi honetan parte hartzeko eskaera aurkezteko epea 2023ko otsailaren 21etik 2023ko martxoaren 20ko 14:00ak artekoa izango da, hala ezarri baita oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpenaren 9.3 oinarrian.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetzaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

## I. ERANSKINA

## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAN ESTATUTUPEKO LOTURA FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK ONARTZEA FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIAN (LANEKO MEDIKUNTZAKO FEM LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETAN

1.– Deialdiaren xede diren destinoak.

1.1.– Deialdi honen xede izango dira Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Medikua kategoriako (Laneko Medikuntzako FEM lanpostu funtzionala) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoak; II. eranskinean jasota daudenak, alegia.

1.2.– Deialdian sartutako destinoen % 7 desgaitasunen bat duten langileek betetzeko gordeko dira, II. eranskinean jasotako oinarri orokorretako 1.3 oinarrian ezarritako banaketaren arabera.

2.– Izangaiek bete beharreko eskakizunak.

Honen bidez araututako prozesuan parte hartzeko, izangaiek, oinarri orokorretan ezarritako salbuespenak kenduta, aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko eskakizunez gain, oinarri orokorretan jasota daudenak ere bete beharko dituzte, eta horiek kasuan kasu esleitzen den destinoa jabetzan hartu arte bete beharko dira:

a) Oinarri orokorretako 6.2.c) apartatuan xedatutakoarekin bat, Medikuntzako eta Kirurgiako Lizenziadun titulua edo baliokidea izatea eta lortu nahi den lanpostu funtzionalean aritzeko eskatzen den Laneko Medikuntzako espezialitateko titulua izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edonola ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak betetzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak xedatutakoaren arabera, bai eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen beste edozein eskakizun betetzea ere.

c) Eskabideak aurkezteko epearen barruan, izena emateko eskubideengatik dagokion tasa ordaindu izana, eskainitako destinoen lanbide-taldearen arabera:

A1 taldea (A talde zaharra): 25 euro.

3.– Prozesua nola garatuko den:

3.1.– Lehiaketa-oposizioko blokearen eta lehiaketako blokearen lehiaketa-fase bateratua:

3.1.1.– Eskakizunen eta merezimenduen egiaztapena. Dokumentazioa aurkeztea.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendan onartuta dauden izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute –onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita– deialdian parte hartzeko eskatzen diren baldintzen eta merezimenduen alegazioa egiteko, bai eta horien inguruko egiaztatgiriak aurkezteko ere, 12.1 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Egiaztatutako merezimenduak III. eranskineko merezimenduen baremoaren arabera baloratuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera (12.2 oinarria).

3.1.2.– Oinarri orokorretako 14.1.1 apartatua (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.1 apartatua (lehiaketako blokea) zehaztutako puntuazio-hurrenkeraren arabera izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiak honako dokumentu hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute, 14.1.2 oinarrian (lehiaketa-oposizioko blokea) eta 14.2.2 oinarrian (lehiaketako blokea) zerrendatzen den dokumentazioaz gain:

– Medikuntzako eta Kirurgiako Lizenziako tituluaren edo baliokidearen eta lortu nahi den lanpostu funtzionalean aritzeko eskatzen den Laneko Medikuntzako espezialitatearen tituluaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

Izangai bat aldi berean lehiaketa-oposizioko blokeko I. eranskinean eta lehiaketako blokeko I. eranskinean sartuta badago, dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu beharko du, oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera (14.1.2 oinarria).

3.2.– Lehiaketa-oposizioko blokeari dagokion oposizio-fasea:

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio proben edukia eta kalifikazioa zehaztea, eta, horretarako, hautaketa-prozesua behar bezala garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu eta prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatuko du.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari eskatu ahal izango dio aholkulariek parte har dezatela hautaketa-prozesuaren fase guztietan, bai proba prestatzeari dagokionez, bai lehiaketa-fasean. Aholkulariek epaimahaikideei eskatzen zaien titulu-eskakizun bera izango dute.

Epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari kanpoko erakunde aholkularietara jotzea ere eskatu ahal izango dio, probak prestatzeko eta oposizio-fasean probekin zerikusia duten gai guztietarako.

Oposizio-fasean ariketa hauek egin beharko dituzte:

a) Lehenengo ariketa: probari idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehieneko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira.

1.– Gai-zerrenda komunari buruzko galderak Osakidetzaren webgunean argitaratutako galdera-sortatik aterako dira.

2.– Gai-zerrenda komunari buruzko galdera horiek prestatzeko bibliografia ere eranskin berean emango da.

b) Bigarren ariketa: epaimahaiak proposatzen dituen ariketa praktikoak egin beharko dira. Horretarako, aukerako erantzunak dituen galdera sorta bat erantzun beharko da.

Ariketak destinoen funtzio espezifikoekin lotuta egongo dira eta haien helburua izango da izangaiak destino horietan aritzeko dituzten gaitasunak, abileziak, ezagutzak eta ahalmen profesionala baloratzea.

Oposizio-fasean bi ariketa egingo dira proba berean; ariketa teoriko bat eta praktiko bat, biak eskainitako destino ezberdinetako funtzio espezifikoekin lotuta. Probaren azken emaitza bi ariketen

batezbesteko haztatua izango da, % 65 proba teorikoarena eta % 35 ariketa praktikoarena. Horretarako, formula honen arabera lortuko da batezbesteko haztatua:

$$MP = \frac{(N1 * 65) + (N2 * 35)}{65 + 35}$$

MP: batezbesteko haztatua.  
N1: proba teorikoaren nota (gehienez, 100 puntu).  
N2: proba praktikoaren nota (gehienez, 100 puntu).

Oposizio-fasea gaindituztat emateko, bi ariketen batezbesteko haztatuak 100 puntutik 50 puntukoa izan beharko du gutxienez.

Epaimahai kalifikatzaileari dagokio gai-zerrenda komunekoa hautatzea eta gai-zerrenda orokorreko galderak hautatzeari buruzko erabakiak hartzea. Epaimahaiak galdera horiekin guztiekin osatuko du, hain zuzen ere, ariketa teorikoa. Era berean, epaimahai kalifikatzaileari dagokio ariketa praktikoa egitea eta kalifikatzea.

### 3.3.– Lanpostuaz jabetzea.

Oinarri orokorretako 17. oinarrian aipatutako dokumentazioaz gain, deialdi honetako destinoren bat jabetzan hartzen dutenek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte lanpostuaz jabetzeko ekitaldian:

- Elkargokide-ziurtagiria.

## II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA HONETAN: MEDIKUA, LANPOSTU  
FUNTZIONALA: FAK. ESP. LANEKO MEDIKUNTZAKO MEDIKUA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 1736/2022 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera, destino hauek betetzeko deialdia egiten da:

1.– Lehiaketa-oposizio blokea:

a) Txanda askeko deialdia: 3 destino.

Sarbide orokorra: 3.

Erreserba-kupoa desgaitasunen bat duten pertsonentzat: 0.

– Adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa: 0.

– Bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa: 0.

Adimen-desgaitasuna duten langileentzako destinoak (adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako kupoa) ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzten duen izangai nahikorik, destino horiek desgaitasunen bat duten langileentzako erreserba-kupoan gehituko dira (bestelako desgaitasunak dituzten pertsonentzako kupoa).

Desgaitasunen bat duten langileentzako destinoak ez badira betetzen ez dagoelako hautaketa-prozesua gainditzten duen izangai nahikorik, destino horiek dagokion txandako sarbide orokorreko lanpostuetan gehituko dira; hots, barne-sustapenean edo txanda irekian.

Oinarri orokorretako 2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoak, lehiaketa-oposizioko blokekoak zein lehiaketako blokekoak, zehaztuko dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorreko uneko zikloko destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren, deialdiaren xede diren kategoriak, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2018-2019ko EPEko behin betiko esleipenaren ebazpena argitaratu ondoren. Bi horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez argitaratuko dira, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko dira.

## III. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA FAKULTATIBO MEDIKOAK ETA TEKNIKOAK  
LANBIDE-TALDEKO MEDIKUA KATEGORIAN (LANEKO MEDIKUNTZAKO FEM  
LANPOSTU FUNTZIONALA), OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU  
SANITARIOETAKO ERAKUNDEETAKO DESTINOETARAKO

## 1) Lan-esperientzia (gehienez, 60 puntu).

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko 20 urteetan izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Dagokion espezialitateko etengabeko arretako behin-behineko izendapen batean egindako zerbitzuen puntuazioari zerbitzu horiengatik normalean ematen den puntuazioaren % 50 aplikatuko zaio.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituko da, eta baztertu egingo dira hilabete-tik beherako soberakinak. Horretarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

Zerga, administrazio eta gizarte neurriei eta ordena sozialari buruzko abenduaren 23ko 62/2003 Legean xedatutakoaren arabera eta deialdiak ezarri bezala, titulua irailaren 24ko 1497/1999 Errege Dekretuaren babesean eskuratu dutenen espezialista gisako antzintasuna baloratzeko, aintzat hartuko da interesdunak espezialitatearen berezko eta berariazko eremuan egindako lan profesional eraginkor osoa. Nolanahi ere, jardute horretatik –eta hasierako alditik– kendu egingo da Espainian espezialitate horretarako ezarritako prestakuntza-aldiaren % 170. Kenketa hori ez zaie aplikatuko espezialista-titulua 1497/1999 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera lortu dutenei.

1.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan Prebentzio Zerbitzuko mediku gisa edo arlo medikoko kudeaketa lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko: 0,30 puntu.

2.– Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan Prebentzio Zerbitzuko Mediku gisa edo arlo medikoko kudeaketa lanpostuetan emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,075 puntu.

3.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan eta autonomia-erkidegoetako zerbitzu sanitarioetan edo Osasun Sistema Nazionalari atxikitako ikerketa-zentro ofizialetan edo bestelako erakundeetan Mediku Orokor edo beste espezialitateetako mediku edo ikertzaile gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,12 puntu.

4.– Aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edota Europar Batasuneko gainerako estatu kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan Mediku Orokor edo beste espezialitate batzuetako mediku edo ikertzaile gisa emandako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,03 puntu.

5.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan eta autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan kudeaketa-arloan eta zerbitzu orokorren arloan goi-mailako kudeaketa lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko: 0,05 puntu.

Barne-sustapeneko txandaren bidez sartzan diren langileei ondoren zehazten den moduan zenbatuko zaizkie alde aurreko zerbitzuak:

a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,02 puntu hilabete bakoitzeko.

b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,03 puntu hilabete bakoitzeko.

c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,04 puntu hilabete bakoitzeko.

d) B taldean eskainitako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.

e) A taldean eskainitako zerbitzuak: 0,12 puntu hilabete bakoitzeko.

f) Lortu nahi den lanpostu berean emandako zerbitzuak:

f.1) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan edo autonomia-erkidegoetako osasun-zerbitzuetan: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.

f.2) Gizarte Segurantzako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan, aurreko puntuan aipatu ez diren administrazio publikoetan edota Europar Batasuneko gainerako kideen sare publikoko zerbitzu sanitarioetan: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu-eginkizunetan edo goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira zerbitzu berezietan emandako zerbitzuak.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa (gehienez, 20 puntu).

A) Apartatu honetan, honako hauen arabera egiaztatzen den prestakuntza baloratuko da:

a) Graduaurreko prestakuntza:

Espediente akademikoaren balorazioa honela egingo da:

$$\frac{(\text{Bikain kopurua} \times 6) + (\text{Ohorezko matrikulen kopurua} \times 9)}{\text{Ikasgaiak, guztira}}$$

Ez dira ebaluatuko, eta, horregatik, ez dira zatitzailean sartuko, ez ofizialki baliozkotu diren ikasgaiak, ez erlijioak, prestakuntza politikoko, gorputz-hezkuntzako eta hizkuntzetako ikasgaien kalifikazioak, ez Medikuntzako eta Kirurgiako Lizentziako ikasketen edo baliokidearen berezko edukiarekin funtsezko loturarik ez duten beste ikasgai batzuen kalifikazioak.

b) Graduondoko prestakuntza:

– Cum laude doktore-titulua: 10 puntu.

– Doktore-titulua: 9 puntu.

– Graduondoko masterra: 6 puntu.

– Unibertsitateko Aditu edo Espezialista titulua: 5 puntu.

– Ikertzeko nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan: 4 puntu.

– Lizentzia-gradua (bikain edo ohorezko matrikula): 3 puntu.

– Doktoretza-ikastaroa, ikastaro bakoitzeko (gehienez, 10 ikastaro): 0,25 puntu.

– Lotutako bestelako unibertsitate-tituluak: 2,5 puntu.

Cum laude doktore gisa puntuazioa emanez gero, ez da punturik emango doktore gisa. Cum laude doktorea edo Ikertzeko nahikotasuna edo Ikasketa aurreratuen diploma lortzeko balio izan duten programetako doktoretza-ikastaroek ez dute punturik emango.

c) Prestakuntza espezializatua:

1.– Kategorian sartzeko eskatutakoak ez diren legez aitortutako espezialitate bateko edo batzuetako tituluak dituzten izangaiak, betiere titulu horiek ofizialki onartutako fakultatiboen prestakuntza espezializatuko programa egoiliar gisa bete ondoren lortu badituzte: 2 puntu.

2.– Kategorian sartzeko eskatutakoa ez den espezialista-tituluak dituzten izangaiak (BAME bidezkoak ez direnak): 1 puntu.

d) Hizkuntzak (gehienez, 3 puntu):

– Ingelesa: gehienez, 1,5 puntu.

– Frantsesa: gehienez, 1,5 puntu.

– Alemana: gehienez, 1,5 puntu.

e) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

B) Apartatu honetan, eskaerak aurkezteko azken egunaren aurreko 10 urteetan amaitu den prestakuntza baloratuko da, eta honela egiaztatuko da:

a) Etengabeko prestakuntza:

Eskatutako destinoaren kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

– 9 ordura arte: 0,25 puntu.

– 10 eta 19 ordu bitartean: 0,75 puntu.

– 20 eta 29 ordu bitartean: 1,25 puntu.

– 30 eta 49 ordu bitartean: 2 puntu.

– 50 eta 99 ordu bitartean: 3 puntu.

– 100 eta 249 ordu bitartean: 4 puntu.

– 250 eta 599 ordu bitartean: 5 puntu.

– 600 ordu edo gehiago: 6 puntu.

Ikastaroen egiaztagirian kreditu kopurua bakarrik jasota dagoenean, puntuazioa emateko balio-kidetasun hau egingo da:

– Kredituen Europako Sistemaren (ECTS) 1 kreditu: 25 ordu.

– Etengabeko Prestakuntza Batzordeko 1 kreditu: 10 ordu.

Ikastaroaren ordu kopurua eta kreditu kopurua adierazten ez duten egiaztagirien kasuan, edo kredituak izan bai, baina horiek aurreko paragrafoan zehaztutakoak ez direnean edo kredituen beste ordu-baliokidetasun bat ezartzen denean, epaimahaiak, aurkeztutako egiaztagiriak eta ikastaroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan z du inolaz ere 0,25 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak baloratuko dira, baita edozein adminis-

trazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera egiaztatutako/akreditatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

b) Irakaskuntza-jarduerak:

- Fakultateko/Unibertsitate Eskolako katedraduna (urteko): 1 puntu.
- Unibertsitateko fakultateko/eskolako irakasle titularra edo elkartua (urteko): 0,50 puntu.
- Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,750 puntu.
- Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,050 puntu.

c) Jarduera zientifikoa eta ezagutzaren hedapena:

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak argitaratzearen, txostenak aurkeztearen, komunikazioak aurkeztearen, hitzaldiak ematearen edo mahai-inguruetan parte hartzearen:

- Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,50 puntu.
- Estatuko txosten bakoitzeko: 2 puntu.
- Nazioarteko txosten bakoitzeko: 3 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,30 puntu.
- Estatuko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,20 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 2 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,40 puntu.
- Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 1,50 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 2,50 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 4 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 2 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Tesina bakoitzeko: 3 puntu.

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

3) Euskara:

- 2. HE: 18 puntu.
- 1. HE: 9 puntu.

## IV. ERANSKINA

## LANEKO MEDIKUNTZAKO FEM

## I.– GAI-ZERRENDA OROKORRA

1.– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea. Egitura organikoa, funtzioak eta eskumenak.

2.– Osasun-arloko zaintza: osasun-langileei dagozkien alderdi espezifikoak. Protokolizazioa. Lanposturako egokitasuna. Informazioaren transmisioa enpresan. Kontsiderazio etikoak.

3.– Aldi baterako ezintasuna. Errehabilitazio profesionala. Ezintasun iraunkorra. Prebentzio-zerbitzuen jarduna.

4.– Lan-istripua eta gaixotasun profesionalak. Lanarekin zerikusia duten beste osasun-kalte batzuk. Laneko gaixotasuna. Lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateak.

5.– Ingurune sanitarioan erradiazio ionizatzaileen eraginpean izateko arriskua. Profesionalki eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza eta prebentzioa.

6.– Ingurune sanitarioan erradiazio ez-ionizatzaileen eraginpean izateko arriskua. Profesionalki eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza eta prebentzioa.

7.– Lan sanitarioan alergenoen eraginpean izatea. Eraginpean izatearen arriskuaren prebentzioa. Profesionalki eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza.

8.– Odol-transmisioko birusarekiko esposizioa inguru sanitarioan. Eraginpean izatearen arriskuaren prebentzioa. Jarduera-protokoloak. Profesionalki eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza.

9.– Tuberkulosi-arriskuaren prebentzioa langile sanitarioetan.

10.– Ingurune sanitarioan beste agente biologiko batzuen eraginpean izateko arriskuaren prebentzioa.

11.– Zamatze fisikoa sektore sanitarioan. Erlazionatutako nahasmendu muskuloesketikoak. Prebentzioa eta detekzio goiztiarra, kontingentzia profesionalaren zehazpena.

12.– Datuak bistartzeko pantailekin lan egitearen ondoriozko arriskua. Profesionalki eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza eta prebentzioa.

13.– Txandakako lana: txandek osasunean eragiten dituzten gorabeheren prebentzioa eta detekzio goiztiarra. Erritmo biologikoak.

14.– Arrisku psikosozialerako faktoreak langile sanitarioen artean. Arrisku horiek ebaluatzeko tresnak. Laneko indarkeria.

15.– Adikzio-jokabideen prebentzioa eta detekzio goiztiarra lanean. Ingurune sanitarioko langileen ezaugarri espezifikoak.

16.– Laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemak enpresa sanitarioan. Prebentzioa kudeaketan integratzea. Erantzukizunen esleipena.

17.– Lan-baldintzen azterketa: enpresa sanitarioko aplikazioak. Identifikazioa, ebaluazioa, prebentzio-jarduna eta jarraipena. Bereziki zaurgarriak diren langileen gaineko kontsiderazioak eta amatasunaren babesa.

- 18.– Estatistika deskribatzailea. Biztanleria eta lagina. Joera zentralako eta dispertsioako neurriak.
- 19.– Estatistika inferentziala. Estimazioak eta hipotesi-testak. Korrelazioa eta erregresioa.
- 20.– Metodo epidemiologikoa lan-osasunean. Maiztasunaren neurketak eta eraginaren neurketak. Zeharkako eta luzetarako behaketa-azterlanak eta azterlan esperimentalak.
- 21.– Ikerketa epidemiologikoen baliozkotasuna eta zehaztasuna. Errore sistematikoa eta ausazko errorea. Langile osasuntsuaren eragina.
- 22.– Baheketa edo screeninga erabiltzea ingurune sanitarioan gaixotasunak goiz detektatzeko.
- 23.– Segurtasuna enpresa sanitarioan. Arriskuaren estimazioa, planifikatutako ikuskapenak eta prebentziozkoak. Gorabeheren eta istripuen kudeaketa. Horiek ikertzeko metodologia.
- 24.– Emergentsia-planak eta autobabeserako eskuliburuak ingurune sanitarioan.
- 25.– Hondakin sanitarioen kudeaketa. Euskal Autonomia Erkidegoko legeria.
- 26.– Higiene industriala gaixotasun profesionalen prebentziorako teknika gisa. Alderdi metodologikoak. Arrisku higienikoaren balorazio-irizpideak. Laginketa- eta analisi-metodoak. Horien aplikazioa ingurune sanitarioan.
- 27.– Osasunerako arrisku-faktoreak ingurune sanitarioko inguru fisikoan: zarata, tenperatura, argiztapena eta kolorea.
- 28.– Toxikologia: esposizioaren eta osasunean dituen eraginen monitorizazio biologikoa. Muga-balio biologikoak. Langile sanitarioen osasunaren zainketan aplikatzea.
- 29.– Lan sanitarioan agente kimikoen eraginpean izatea. Arrisku-agente nagusiak. Arriskuaren ebaluazioa eta prebentzio-jarduera. Eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza.
- 30.– Ingurune sanitarioan agente genotoxikoen eraginpean izatearen ondoriozko arriskuaren ebaluazioa. Kantzerigenoen eraginpean dauden langileen osasunaren zaintza. Ingurune sanitarioko teratogeno profesional nagusiak. Medikamentu arriskutsuak. Osasunaren zainketa teratogenoen eraginpean dauden kasuetan.
- 31.– Ergonomia: helburuak eta funtzioak. Ergonomiaren aplikazioa sektore sanitarioan. Lanpostuen diseinua.
- 32.– Sektore sanitarioko laneko arriskuen prebentzioarekin lotura duten lege-esparruak. Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea. Arlo sanitarioan aplikatzekoak diren dekretuak. Lan-osasuna Osasunaren Lege Orokorrean.
- 33.– Laneko arriskuen prebentzioarekin lotura duten agente nagusiak: Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionala (INSHT zena).
- 34.– Laneko arriskuen prebentzioarekin erlazionaturiko nazioarteko ekintza: Lanaren Nazioarteko Erakundea, Laneko Segurtasunari eta Osasunari buruzko hitzarmenak. Laneko Segurtasunerako eta Osasunerako Europako Agentzia.
- 35.– Prebentzio-zerbitzuen araudia. Prebentzioaren antolaketa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan. Zerbitzu medikoen antolaketa prebentzio-zerbitzuetan. Prebentzio-espezialitateen eginkizunak. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko erantzukizunak.

36.– Langileen parte-hartzea laneko arriskuen prebentzioan. Ordezkaritza- eta partaidetza-organoak.

37.– Arrisku profesionalpean diharduten langileentzako informazioa eta prestakuntza. Komunikazioa enpresan.

38.– Norbera babesteko ekipamendua eta babes kolektibokoa.

39.– Amatasuna babestea. Araudi aplikagarria. Haurdunaldiko eta edoskitzaro naturaleko arrisku-egoerak. Egokitzapena, lanpostu-aldaketa.

40.– Bereziki zaugarriak diren langileen babesa.

41.– Emergentsietan eta ebakuazioetan jardutea. Lehen sorospenak. BBB.

42.– Osasunerako eta segurtasunerako heziketa, lan-osasunaren arloan. Osasunerako heziketako teknika didaktikoak. Lan-osasunaren arloko aplikazioa. Lan-osasunaren inguruko prestakuntza-planak. Programak eta inpaktuaren ebaluazioa. Osasunaren sustapena.

43.– Laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemak enpresa sanitarioan. Prebentzio-plana eta prebentzioaren planifikazioa. Laneko arriskuen prebentzioaren integrazioa.

44.– Prebentzioaren kudeaketarako ziurtapen-sistemak. ISO 45. 001. Lan-arriskuen prebentzio-sistemen auditoretzak.

#### GAI-ZERRENDAREN OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1.– Osakidetzako Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema: Eskuliburua. Prozedurak eta protokoloak. Karpeta gorria. Informazio-eskuliburuak.

2.– Gai-zerrendarekin lotura duten gida teknikoak, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioko Laneko Segurtasun eta Osasun Institutu Nazionalak (INSHT zenak) argitaratutakoak.

3.– Gai-zerrendarekin lotura duten prebentzioari buruzko ohar teknikoak, Laneko Segurtasun eta Osasun Institutu Nazionalak argitaratutakoak.

4.– Gai-zerrendarekin lotura duten zainketa sanitario espezifikoko protokoloak. Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde-arteko Batzordearen Osasun Publikoko Batzarraren Lan-osasuneko Lantaldea.

5.– Condiciones de trabajo en centros sanitarios. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionala. Ana Hernández Calleja, Xavier Guardino Solá, María Isabel de Arquer Pulgar. 2009.

6.– Salud laboral: Conceptos y técnicas para la prevención de riesgos laborales. Masson. Frutos, C. R. 2014.

7.– Manual para la implantación de un plan de PRL en la empresa. I. Olaciregui eta I. M. <sup>a</sup> Azkoaga. Osalan. 2006.

8.– Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 115. eta 116. art.

9.– Guía de bioseguridad para profesionales sanitarios. Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde Arteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordea. Osasun Ministerioa. Kontsumoa eta Gizarte Ongizatea. 2015.

<https://www.mscbs.gob.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/docs/guiabioseg1.pdf>

- 10.– EAEko tuberkulosiaren programa. Osasun Saila. 2012 (2013an eguneratua).  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia\\_protocolos/eu\\_def/adjuntos/TUBERKULOSISI%20EUSKERA%20FINAL.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/vigilancia_protocolos/eu_def/adjuntos/TUBERKULOSISI%20EUSKERA%20FINAL.pdf)
- 11.– Txertaketen Eskuliburua. Eusko Jaurlaritzak. 2020. 1. edizioa (2016) eta eguneratzeak.  
<https://www.euskadi.eus/informazioa/txertaketen-eskuliburura/web01-a2gaixo/eu/>
- 12.– Vacunación en trabajadores sanitarios. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. 2017ko apirila.  
[https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/vacunaciones/vacunas/docs/Vacunacion\\_sanitarios.pdf](https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/vacunaciones/vacunas/docs/Vacunacion_sanitarios.pdf)
- 13.– Guía de criterios de aptitud para trabajadores del ámbito sanitario. 2014.  
<https://scielo.isciii.es/pdf/mesetra/v61n238/editorial.pdf>
- 14.– Guía de valoración del riesgo laboral en el embarazo y lactancia en trabajadoras del ámbito sanitario, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, Instituto de Salud Carlos III. 1. 0. bertsioa. 2008ko ekaina.
- 15.– Laneko zaintza epidemiologikoa. Prebentzio zerbitzuek zaintza kolektiboa ezartzeko gidaliburua. 2015. Osalan.
- 16.– Introducción a la epidemiología ocupacional. Hernberg S. Ediciones Díaz Santos. 1995.
- 17.– Epidemiología laboral. A. de la Iglesia Huerta et al. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionala. 1992.
- 18.– Psicología del trabajo. Nogareda C y otros. INSHT. 2006.
- 19.– Guía de buena praxis para la vigilancia de la salud mental relacionada con los factores de riesgo psicosocial. Kataluniako Generalitatea. Departament de Salut. 2010 (2015 gaztelaniaz).
- 20.– El acoso moral en el trabajo. Evaluación, prevención e intervención. E. Fernández y otros. Osalan. 2004.
- 21.– Guía de actuaciones de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social sobre Riesgos Psicosociales. Enplegu eta Gizarte Segurantzak Ministerioa. 2012.
- 22.– Guía de criterios de protección radiológica ocupacional para trabajadores expuestos en instalaciones radiactivas en el sector sanitario. Babes Erradiologikoko Espainiako Elkarteak. SEPR. 2012.
- 23.– Guía de seguridad 7. 5 (rev. 1) Actuaciones a seguir en caso de personas que hayan sufrido un accidente radiológico.
- 24.– Ergonomía y psicología del trabajo. González Maestre D. FC Editorial. 2007.
- 25.– Manual de higiene industrial. Fundación MAPFRE. Editorial Mapfre, S.A. España. 1991.
- 26.– Técnicas de prevención de riesgos laborales: seguridad e higiene en el trabajo. 10. edizioa. José M. Cortés Díaz. 2012.
- 27.– Salud Laboral. Conceptos y técnicas para la prevención de riesgos laborales. Fernando G. Benavides et al. 5. edizioa. 2022. Editorial Elsevier.
- 28.– ISO 45. 001:2018. Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemak.

29.– Osasun okupazionalen profesionalentzako nazioarteko kode etikoa. Osasun Okupazionalaren Nazioarteko Batzordea (CISO/ICOH). 2012an eguneratua.

30.– Dokumentu teknikoa. 87. 1. 6. Medikamentu arriskutsuak. INHST. Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

31.– Seguridad en el trabajo. 6. edizioa. 2011. M. Bestatren et al. Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutu Nazionala.

32.– Laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemei buruzko jarraibideak. Lanaren Nazioarteko Bulegoa. Geneva. MEOSH/2001/2 (Berrik.)

33.– Communication E-Network developing ergonomics of manual handling of patients.

<https://osha.europa.eu/en/publications/communication-e-network-developing-ergonomics-manual-handling-patients>

34.– Work-related musculoskeletal disorders: back to work report. Europako Segurtasun eta Osasun Agentzia (<http://osha.europa.eu/en/publications/reports/7807300>), 2007.

<https://osha.europa.eu/en/publications/report-work-related-musculoskeletal-disorders-back-work/view>

35.– Joseph LaDou, Robert Harrison. Lange Medical Books. CURRENT Occupational and Environmental Medicine. 5. edizioa. McGraw-Hill Education/Medical, 2014.

## LEGEDIA

1.– Laneko osasunari buruzko araudia, Osasun Ministerioaren webgunekoa. Kontsumoa eta Gizarte Ongizatea.

<https://www.mscbs.gob.es/ciudadanos/saludAmbLaboral/saludLaboral/normativa.htm>

2.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa (2007, 2008 eta 2009).

3.– 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa eta gero egin zaizkion aldaketak; 54/2003 Legea, abenduaren 12koa, laneko arriskuen prebentzio-legearen arauketa-esparrua aldatzen duena (2003ko abenduaren 13ko BOE 298 zk.).

4.– 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio-zerbitzuen Araudia onartzen duena; 604/2006 Errege Dekretua, 39/1997 Errege Dekretua aldatzen duena, eta arlo honetan geroago egin diren aldaketak.

5.– 843/2011 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, osasun-jarduera eta prebentzio-zerbitzuak garatzeko baliabideen antolamenduari buruzko oinarriko irizpideak ezartzen dituena, eta geroago arlo honetan egin diren aldaketak.

6.– 306/1999 Dekretua, uztailaren 27koa, prebentzio-zerbitzuek Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen dituzten jarduerak arautzen dituena; eta 31/2006 Dekretua, otsailaren 21ekoa, zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak baimentzeari buruzkoa.

7.– 7/1993 Legea, abenduaren 21ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzeko dena, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

8.– 191/2002 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen egitura eta jarduerarako araudia onartzeko dena, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

9.– 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasun arlokoa, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak (33/2011 Lege Orokorra, urriaren 4koa, Osasun Publikoari buruzkoa).

10.– 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

11.– 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, Laneko osasunaren eta segurtasun-seinaleztapenaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

12.– 486/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, Laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

13.– 487/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, zama eskuz kargatzeagatik arriskuan izan daitezkeen langileen osasunaren eta segurtasunaren (batez ere, bizkarrean eta gerrialdean) arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

14.– 488/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, datuak bistartzeko pantailak dituzten eki-poekin lan egitearen inguruko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoa, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

15.– 664/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, Lanean dauden bitartean langileak agente kantzerigenoen esposizioarekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzkoa eta gero arlo honetan egin diren aldaketak. 1124/2000 Errege Dekretua, ekainaren 16koa, 664/1997 Errege Dekretua zati batean aldatzen duena (2000ko ekainaren 17ko BOE).

16.– 665/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, Lanean dauden bitartean langileak agente kantzerigenoen esposizioarekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzkoa; 349/2003 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Lanean dauden bitartean langileak agente kantzerigenoen esposizioarekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzko maiatzaren 12ko 665/1997 Errege Dekretua aldatzen duena eta horren aplikazio-esparrua agente mutagenoetara ere zabaltzen duena (2003ko apirilaren 5eko BOE).

17.– 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipamendua erabiltzeari buruzko laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

18.– 1215/1997 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, langileek laneko ekipamenduak erabiltzearen inguruko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

19.– 374/2001 Errege-dekretua, apirilaren 6koa, Lanean dauden bitartean langileen osasuna eta segurtasuna gai kimikoekin erlazionatutako arriskuen kontra babesteari buruzkoa, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

20.– 598/2015 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, honakoak aldatzen dituena:

– 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen duena.

– 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, Laneko osasunaren eta segurtasun-seinaleztapenaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa.

– 665/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 12koa, Lanean dauden bitartean langileak agente kantzerigenoen esposizioarekin lotutako arriskuen aurka babesteari buruzkoa.

– 374/2001 Errege Dekretua, apirilaren 6koa, Lanean dauden bitartean langileen osasuna eta segurtasuna gai kimikoekin erlazionatutako arriskuen kontra babesteari buruzkoa (2015eko uztailaren 4ko BOE 159 zk.).

21.– 783/2001 Errege Dekretua, uztailaren 2koa, erradiazio ionizatzaileen kontrako babes sanitarioaren araudia onartzen duena, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

22.– 815/2001 Errege Dekretua, uztailaren 13koa, medikuntzan elementu arriskutsuen eraginpean egon litezkeen pertsonen babes erradiologikorako erradiazio ionizatzaileak erabiltzeko justifikazioari buruzkoa.

23.– 286/2006 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, lanean langileen osasuna eta segurtasuna zaratak dakartzan arriskuetatik babesteari buruzkoa, eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

24.– 1299/2006 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Gizarte Segurantzaren sistemako gaitasun profesionalen koadroa onartu eta horien jakinarazpen eta erregistroa egiteko irizpideak ezartzen dituena (2006ko abenduaren 19ko BOE), eta gero arlo honetan egin diren aldaketak.

25.– 298/2009 Errege Dekretua, martxoaren 6koa, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua aldatzen duena, haurdun dauden langileen segurtasuna eta osasuna hobetzea sustatzeko neurrien aplikazioaren harira.

26.– 625/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa,aldi baterako ezintasun-prozesuen kudeaketaren eta kontrolaren alderdi batzuk arautzen dituena lehenengo hirurehun eta hirurogeita bost egunen barruan (BOE 176, 2014ko uztailaren 21ekoa).

27.– 171/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 24. artikulua garatzen duena, enpresa-jardueren koordinazioari dagokionez.

28.– Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 115. eta 116. art.

29.– 21/2015 Dekretua, martxoaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin sanitarioen kudeaketari buruzkoa.

30.– 396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplika dakizkiekeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak zehazten dituena.

## II.– GAI-ZERRENDA KOMUNA

1.– Osasun-lanbideen araudia.

2.– Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitatea.

3.– Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutua.

4.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioa.

5.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoa.

6.– Osakidetzako paziente eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

7.– Pazientearen autonomia eta eskubideak eta betebeharrak informazio eta dokumentazio klinikoko gaietan.

- 8.– Osasunaren arloko aurretiazko borondateak.
- 9.– Datu Pertsonalak Babesa eta Eskubide Digitalak Bermatzea.
- 10.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.
- 11.– Marko Estrategikoa.
- 12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak.
- 13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan.
- 14.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia.
- 15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana.

#### GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa.
- 2.– 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa.
- 3.– 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuarena.
- 4.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena.
- 5.– 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituenak.
- 6.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sistemako pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.
- 7.– 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokiena.
- 8.– 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun-arloko aurretiazko borondateena.
- 9.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.
- 10.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bigarren aldaketa barne.
- 11.– Marko Estrategikoa. Osasun Saila. 2021-2024.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco\\_estrategico\\_2021\\_2024/eu\\_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/eu_def/adjuntos/Marco-Estrategikoa-Osasun-Saila-2021-2024.pdf)
- 12.– Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020.  
[http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/eu\\_pub/adjuntos/osasun\\_plana\\_2013\\_2020.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/eu_pub/adjuntos/osasun_plana_2013_2020.pdf)
- 13.– Pazientearen Segurtasun Estrategia Osakidetzan 20 20.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo\\_estrategia\\_seg\\_paciente/eu\\_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020\\_eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_eu.pdf)

14.– Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia (2021-2024).

[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc\\_sosa\\_soziosanitario\\_estrat/eu\\_def/adjuntos/estrategia\\_sociosanitaria\\_187x280\\_eu\\_web.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_soziosanitario_estrat/eu_def/adjuntos/estrategia_sociosanitaria_187x280_eu_web.pdf)

15.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko III. Plana 2022-2028.

[https://www.osakidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk\\_trbg\\_planes\\_programas/eu\\_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf](https://www.osakidetz.euskadi.eus/contenidos/informacion/osk_trbg_planes_programas/eu_def/adjuntos/Osakidetzan-Euskararen-Erabilera-Normalizatzeko-III-Plana-2022-2028.pdf)